# Xedapen Orokorrak

## GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

### 852

12/2007 DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo autoz garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearen Erregelamendua aldatzeko dena.

Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo autoz garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan eskaintzen den mota horretako zerbitzuen araubide juridikoa ezartzen du, eta ekonomia-arlo horri Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako behar eta eskakizunetara egokitutako arau propioak eskaintzen dizkio.

Legeak udalei ematen die, hiriko garraioaren barruan, zerbitzuen plangintza, ikuskapen eta zehapenen ardura, eta, bestetik, ezartzen du zerbitzua eskaintzekoan zorrotz bete beharko dela arau bidez finkatzen diren ordutegi, txanda, opor eta etenaldien araubidea.

Urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren bidez, lege horren Erregelamendua onartu zen. 41. artikuluan zerbitzuak emateko ordutegi eta egutegiak finkatzeko era arautu zen, eta zehazki honela dio: «Zerbitzua ondo koordinatu ahal izateko eta zerbitzu jarraitua eskaintzeko, udalek, bakoitzak bere udalerrian, lizentzien titularren ordutegi, egutegi, atseden eta urteko oporren araubidea finkatu ahal izango dute, lan arloko eta gizarte segurantzako legeak errespetatuz eta lurralde horretan ordezkaritza duten taxi arloko elkarteen iritzia entzun ondoren. Udal-ordenantzen bidez, goian aipatutako elkarteei entzun ondoren, zerbitzua antolatu ahal izateko lizentzien titularrek zerbitzua zenbat denborarako eten behar duten arautuko da».

Erregelamenduaren 32. artikuluak taximetroa eta modulua arautzen ditu, eta lehenengo idatz-zatian zehazten du ezen herri barruko garraiorako lizentziaren eta herriz kanpoko garraiorako baimenaren titularrak, lizentzia edo baimenarekin lotutako ibilgailuan taximetro bat eta modulu bat jarriko dituela, unean indarrean dauden tarifak aplikatzeko eta behar bezala ikusteko. Artikulu horretan bertan esaten du taximetroa karrozeriaren aurreko aldeko erdiko herenean jarri beharko dela, taxiaren barrualdean, bidaiariak garraioaren prezioa zenbatekoa den ikus ahal izan dezan, eta martxan dagoenean beti piztuta egon beharko duela.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

### 852

DECRETO 12/2007, de 30 de enero, de modificación del Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en automóviles de turismo.

La Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles de Turismo ha procedido a regular el régimen jurídico de estos servicios en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dotando a este sector de una regulación propia adecuada a las necesidades y exigencias surgidas en esta Comunidad Autónoma.

Esta Ley atribuye a los Ayuntamientos, dentro del ámbito del transporte urbano, la planificación, inspección y sanción de los servicios, estableciendo por otra parte que la prestación del servicio se realizará cumpliendo el régimen de horarios, turnos, vacaciones y periodos de interrupción que puedan establecerse normativamente.

Por Decreto 243/2002, de 15 de octubre, se aprobó el Reglamento de la citada Ley, regulándose en el artículo 41 los horarios y calendarios de la prestación del servicio, y estableciendo que para la debida coordinación del servicio, los ayuntamientos podrán regular en su término municipal, con sujeción a la legislación laboral y de seguridad social aplicables y oídas las asociaciones representativas del sector de vehículos de turismo con implantación en su territorio, el régimen de horarios, calendarios, descansos y vacaciones anuales de los titulares de las licencias, procurando que exista continuidad en la prestación de aquel. Las ordenanzas municipales podrán asimismo regular, oídas las asociaciones arriba señaladas, los periodos en que los o las titulares de las licencias hayan de interrumpir la prestación de los servicios por razones de ordenación del mismo.

Por su parte, el artículo 32 del mismo Reglamento regula el taxímetro y módulo, señalando en su apartado 1 que el o la titular de una licencia de vehículos de turismo y, en su caso, autorización de transporte público interurbano, deberá instalar en el vehículo al que se refiere la licencia o autorización, un taxímetro y módulo indicador que permitan la aplicación de las tarifas vigentes en cada momento y su visualización. Asimismo señala que el taxímetro estará situado en el tercio central de la parte delantera del interior de la carrocería, de forma que resulte visible para el viajero o viajera la lectura del precio del transporte, debiendo estar iluminado cuando se encuentre en funcionamiento.

Baina lanaldia mugatu duten udalek benetan muga hori taximetroaren bidez betearazi ahal izan dezaten, ezinbestekoa da aparailuaren inguruko arau-esparrua aldatzea, lanaldia kontrolatzeko aukera ere sartuz.

Ondorioz, Garraio eta Herri Lan sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenari jarraituz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.–*** Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo autoz garraiatzeko zerbitzu publikoaren Legearen Erregelamenduaren, urriaren 15eko 243/2002 Dekretu bidez onartua, 32.1 artikuluan ezarritakoa aldatu eta honela uztea:

«1.– Herri barruko garraiorako lizentziaren eta herriz kanpoko garraiorako baimenaren titularrak, lizentzia edo baimenarekin lotutako ibilgailuan taximetroa eta modulua jarri beharko du, unean indarrean dauden tarifak aplikatzeko eta behar bezala ikusteko, eta halakorik bada, lanaldia kontrolatzeko.

Taximetroa karrozeriaren aurreko aldeko erdiko herenean jarri beharko da, taxiaren barrualdean, bidaiariak eta ikuskapen-zerbitzuek erraz ikusi ahal izan dezaten garraioaren prezioa eta lanaldia amaitzeko zenbat falta den, eta taxia martxan dagoenean beti piztuta egon beharko du. Taximetroak gutxienez lau tarifa erabili ahal izateko balio beharko du, eta bidaia-txartelak inprimatzeko gailua izan beharko du.

Garraio-zerbitzuaren prezioa modu elektronikoan ordaintzeko sistemen instalazioa Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburuaren agindu bidez arautuko da.»

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunetik aurrera hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko urtarrilaren 30ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

Sin embargo, para hacer efectiva la posibilidad de que los Ayuntamientos que hayan establecido la limitación de la jornada laboral, puedan hacer eficaz dicha medida a través de su control por medio del taxímetro, se hace necesario modificar el marco normativo que regula las funciones de dicho aparato, introduciendo la de controlar la jornada laboral.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de enero de 2007,

DISPONGO:

***Artículo único.–*** Modificar el apartado 1 del artículo 32 del Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en automóviles de turismo, aprobado por Decreto 243/2002, de 15 de octubre, que queda redactado de la siguiente forma:

«1. El o la titular de una licencia de vehículos de turismo y, en su caso, autorización de transporte público interurbano, deberá instalar en el vehículo al que se refiere la licencia o autorización un taxímetro y módulo indicador que permitan la aplicación de las tarifas vigentes en cada momento y su visualización, y, en su caso, aquellas funciones que tienen por objeto el control de la jornada laboral.

El taxímetro estará situado en el tercio central de la parte delantera del interior de la carrocería, de forma que resulte visible para el viajero o viajera y para los servicios de inspección, la lectura del precio del transporte, y el tiempo que falta para la conclusión de la jornada laboral, debiendo estar iluminado cuando se encuentre en funcionamiento. El taxímetro deberá permitir la aplicación de al menos cuatro tarifas y deberá contar con un terminal que posibilite la emisión de recibos.

Mediante Orden del Consejero de Transportes y Obras Públicas se regulará la instalación de sistemas que permitan el abono del precio a través de medios electrónicos de pago.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria–Gazteiz, a 30 de enero de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Transportes y Obras Públicas,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.